

Ez da txosnarik izan 2001eko San Pedroetan

Festak, mobilizazioak eta istiluak izan dira jaietan

Alkateak Pintore Kalean txosnak jartzeko baimena ukatu zuenetik, mobilizazio ugari izan da herrian Txosna Batzordeak egindako deialdiei jarraituz.

♦ Aitor Azkonobieta

Lehena ekainaren 25an izan zen. 200 lasarte-oriar inguru Okendon elkar-tu ziren erdialdean txosna duinak jartzeko eskubidea aldarrikatzera. Ordurako Ertzaintzaren hiru furgoneta zain zeuden. Manifestaldia egiteko baimenik ez zegoenez espaloitik abiatu ziren. Ertzaintzak, ordea, aurrera egitea debekatu zien eta bi gazteri karnetak eskatu zizkien ertzein-buruak.

Datuak egiaztatu ondoren antolatzailerkin bildu ziren protesta ekitaldia zer zen galdetzeko. Azalpenak eman eta gero, espaloietik jarraitzeko baimena eman zuten. Manifestaldia istilurik gabe amaitu zen eta ekainaren 27rako beste deialdi bat luzatu zuten; oraingoan baimenarekin eta errepidetik.

Festak hasteko egun bat falta zenean Txosna Batzordekoak zalantza baterik zeuden: Txosnak jarri ala ez? Eta jartzekotan non? Manifestaldietan herritarren erantzuna ikusita, Gestorak, Segik eta Ikasle Abertzaleak txosna jartzea erabaki zuten, Okendon. SOS Arrazakeriak, Osiñak, CNTk eta Komite Internazionalistek ez zutela jarriko jakinarazi zuten nahiz eta txosnen aldeko konzentrazioetan parte hartuko zutela adierazi.

San Pedro bezperan txosnak jartzera joan zirenean Ertzaintza alde batetik bestera zebilenez, bezperan hartutako erabakia bertan behera utzi zuten. Txosna gabeko lehen San Pedroak izan dira. Bere ordezkari jarri zuten Okendon.

Hiru atxilotu San Pedro egunean

San Pedro egunean istiluak izan ziren. Ertzaintzak Estitxu Amantegi, Isidro Monge eta Andoni Monge herritarrek atxilotu zituen, lehen biak zauri larriekin.

Ertzaintzako prentsa-bulegoak emandako bertsioaren arabera, "ezeza-



Ekainaren 30ean prentsaurrekoa egin zuten Okendon aurreko eguneko gertaerak salatzen.

gun batzuk edukiontzia erretzen ari zirela esan ziguten. Patrulla bat bidali genuen eta bertara iristean botilak jaurti zizkieten eta ertzein bat zauritu zuten. Beranduago ezezagun horiek Artizar inguruan zeudela jakin genuen; bi patrulla bidali genituen eta berriro ere, beraien aurkako erasoak hasi zen. Istiluetan beste ertzein bat zauritu zuten eta istiluetan parte hartu zuten emakume bat zauriturik suertatu zen. Anbulantzia bat eskatu genuen Donostiako Ospitalera eramateko eta medikuek aztertu ondoren atxilotu egin genuen. Istiluek eliza inguruan jarraitu zuten eta bertan Monge anaiak atxilotu genituen; gazteenak buruan zauri bat zuten Donostiako Ospitalera eraman genuen". Bi anaiak eliz atarira joan ziren alkatearen aurrean salatzen Ertzaintzak kolpatu egin zituela.

Atxilotuek Hernaniko komisaldetara pasa zuten gaua eta epailearen aurretik pasa ondoren agintariei men ez egitea eta erasoak akusaziopean aske utzi zituzten, ekainaren 30ean.

Egun berean Beñat Iriondok Txosna Batzordearen izenean, Elbis Agirrek tabernariaren izenean eta Xabier Otaegik gazte jipoituen izenean prentsaurrekoa

eskaini zuten gertaeren berri emateko.

"Lehen istiluak Aveni- da inguruan gertatu ziren. Ertzaintza inpunitate osoz sartu zen bertan zeuden gazteekin eta bat baino gehiago zauritu zuten", azaldu zuen Elvisek. Goizeko 11:00k aldera berriro hasi ziren istiluak. Gazte jipoituen bozeramaileak honela kontatu zituen gertakizunak: "Halako batean, kasko gorrikoak sartu ziren Artizarren, porrak eskuetan. Tabernariak han sartzeko eskubiderik eta

baimenik ez zutela esan zien. Beraien erantzuna nolako jendea zegoen ikusi nahi zutela izan zen. Tabernariak ateratzeko esan zien, eta Ertzaintzak ileetatik hartu eta 30 metroan tiraka eraman zuten. Han zegoen jendea zeharo harriduta zegoen. Kasko gorrikoak urduritu, eta jendea jipoitzen hasi ziren". Beñat Iriondok, bestalde, "festetan polizia asko egon dela" salatu zuen eta beste manifestaldietarako deia luzatu zuen.

Ana Urtxuegia alkateari bere iritzia emateko eskatu genion: "Lotsa sentitu beharko lukete herri-meza bezalako ospakizun batean horrelako ekintzak egiteagatik. Ez dezatela onaren papera hartu, norbaitek edaten badu, bakoitzak jasan ditzala bere hanka-sartzeak".

San Pedro egunean Ertzaintzak hiru gazte atxilotu zituen; horietatik bik buruan zauriak zituzten.



Amaitu da Erketz E.D.T.k antolatutako ikastaroa

Erketzek ekainaren 27an amaitu zuen azken bi urteotan egin den dantza ikastaroa. 15 urtez gorakoentzat antolatutako ikastaroan "adin guztietako herritarrek hartu dute parte, beti ere, dantzan eta jai giroan", azaldu digute Erketzekoek.

Guztira hogeitatu lagun bildu dira ikastaroa egiteko, bi taldetan banatuta; eta antolatzailerak gustura daude "aurreikusitako dantza guztiak ikasi dituztelako". Ikasleak ere, antza denez, gustura geratu dira; horren adierazgarri da datorren ikasturtean dantza egiten jarraitzeko duten asmoa. "Ikastaroa bukatu dugun arren, noizean behin elkartuko gara dantza gozatzeko eta nola ez, dantza gehiago ikasteko", diote.

Ikasturtean ikasi dituz-

ten dantzen artean honakoak daude: jauziak, kuadrilla eta polkak, Leitzako eta Iribaseko ingurutxoak, Erronkariko ttunttuna, larraindantza eta fandangoa eta arin-arina.

Lehen aipatu dugunez, bi talde hauek elkartu eta bakar bat osatuko dute irailetik aurrera. Hala ere, Erketz E.D.T.k jakinarazi duenez, "hutsetik hasi nahi dutenentzat beste talde bat osatuko dugu".

Parte hartu nahi duten guztiek irailetik aurrera Erketzek aurrerago zehaztuko duen tokian eta ordutegian izena eman beharko dute. "Lerro hauen bidez dantzan ikasi nahi duten guztiak animatu nahi ditugu, aitzaki ezin hobea da dantzen munduan murgiltzeko. Ez zaizue damutuko".

♦ Aitor Azkonobieta



Ttakunen lana goraiatu dute Udako Topaketan

Sebastian Kerejeta, Ttakun K.E.ko lehendakaria, II. Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoetako gonbidatua izan zen. Sebastian Kerejetarekin batera, Luis Mari Bandres, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kiro-la Departamenduko ordezkaria, Izaskun Madariaga, Hik Hasiko lehendakaria, EHUko ordezkaria eta PATEko ordezkaria zeuden mahaian.

Joxerra Gartzia *Motiezaguera* irailaren zioak gaiarekin zabaldu zituen topaketak. Euskararen sustapenaren ikuspegi kritiko bat eman zuten eta eskoletan euskara zuzena, soilik, jorratu izana eta euskara ona edo egokia baztertu izana salatu zuten. Era berean, Ttakun goraiatu zuen mo-

tibazioa eta erabilpena uzartzen dituelako.

Sebastianen txanda heldu zenean abentura hitza askotan errepikatu zuen. Euskararen biziberritzea abentura dela esan zuen eta gauzak ongi egiteko, "burua, gogoia eta motibazioa behar dira. Burua gauzak bideratzeko. Gogoia eta motibazioa, berriz, aurrera egiteko eta burua erabaki duena gauzatzeko", esan zuen Ttakuneko lehendakaria.

Ttakunen irakasleek eskolan egiten duten lana "aisialdian, komunikabideetan, kafe-antokian, lanmundan eta kalean" egiten ahalegintzen direla azpimarratu zuen Sebastianek. Hirtzaldia amaitzeko, "topaketak ikasteko eta indarberitze baliagarri izatea espero zuela", adierazi zuen.

♦ Aitor Azkonobieta

TRUMOI
TABERNA
TRUMOI TABERNA
Hipodromo etorbidea 3
Tel.: 943 371903
LASARTE-ORIA

EKUS INMOBILIARIA
Zumaburu 5, behe • Tel.: 943 364678 • Tel./Faxa: 943 365847
LASARTE-ORIA

MAITE
ESTETIKAKO ARETOKA
MIKROPIGMENTAZIOA
IRAUN HANDIKO
MAKILLAJEA
Ustien kalea, z/g • Tel. 943 370845
LASARTE-ORIA